



1. Polifemoren burua, Erromako Koliseoa, K.o. II. mendea.

ZIKLOPEEN UHARTEAN

[Homero](#)

(ca. K.a. VIII. mendea)

Homeroren Odisearen IX. kantuan, Odiseo protagonista ziklopeen uhartera iritsi da, Troiako gerraren ondoren Itakarantz doala, etxerako bidean. Han, leize batean sartu da bere gizon batzuekin. Polifemo erraldoiaren bizilekua da, eta janariz gainezka dago. Polifemo bere artaldearekin itzuli denean, harri handi batekin itxi du leizearen ahoa. Ezin aterarik geratu dira Odiseo eta bere gizonak. Laster, argi geratuko da munstroak ez duela heldu berriei harrera ona egiteko asmorik.

Eskua luzatu eta bi lagun hartu zituen; lurraren kontra jo, eta haien muinak zoruan barreiatu ziren. Atalak ebaki, afarirako prestatu eta jan egin zituen, lehoi basati batek bezala; ez zuen utzi ez haragirik, ez [errairik](#), ez hezurrik. Guk eskuak jaso genituen, Zeusi erreguka, itxaropena galdurik.

Giza haragiz eta esnez sabela bete zuenean, lurrean etzan zen ziklopea, ardi eta ahuntzen artean. Orduan, erabaki sendoa harturik, izter ondotik ezpata atera eta bularrean sartu nahi izan nion. Beste eskuaz gibela bilatzen hasi nintzaion, zastatzeko, baina gelditu egin nintzen. Hura hilez gero, gu ere hantxe hilko ginen, ez baikenuen nahikoa indarrik leizearen ahoko harria mugitzeko. Hala, bada, Eos jainkosaren zain geratu ginen, negarrez. Eosek hatz gorriztak erakutsi zituenean, ziklopeak sua egin zuen, eta ardi-ahuntzak jetzi zituen, gauean bezala. Gosaltzeko, beste bi lagun hartu zituen. Gero, ardiak eta ahuntzak kanpora atera zituen, sarrerako harria erraz mugituta. Itxi, eta han joan zen bere artaldeekin, hots handia atereaz ibileran. Ni hausnartzen geratu nintzen: Ateneak mendekua hartzeko aukera emango balit...

Orduan, erabaki bat hartu nuen. Ukuiluaren ondoan, ziklopearen [ziri](#) izugarri bat zegoen, olibondoz egina, heze-hezea. Hogei arraun-aulkidun itsasontzi handi bateko

[masta](#) iruditu zitzaigun neurritz. Joan eta [brazza](#) baten neurrian moztu nuen; lagunen ondora eramanik, zorrozteko esan nien. Leundu zuten, bada, eta muturra neuk zorroztu nion. Hori eginik, sutan jarri nuen, gogor zedin. Gero, zimaurre azpian ezkutatu nuen, ugari zegoen eta.

Zozketa egiteko agindu nuen, ea nork lagunduko zidan [hesola](#) hura jasotzen eta ziklopeari begian sartzen lo hartzen zuenean. Lau aukeratu zituzten; nirekin, bost.

Iritsi zen, bada, ziklopea, ilunabarrean, ile ederreko aziendaren aurretik; sartu zituen leize barruan guztiak, ar eta eme, eta ez zuen bat bakarrik utzi kanpoan, agian susmo txarren bat zuelako, edo jainkoren batek hala aholkatuta. Ate gisa, harri handia jarri zuen, eta ardiak eta ahuntzak jezten hasi zen, banan-banan; jetzi ahala, bakoitzari azpian jaioberri bat ipintzen zion. Lana amaiturik, bi lagun harrapatu, eta afaria prestatu zuen. Orduan, jaiki eta ziklopeagana hurbildu nintzen, eskuan ardo beltzez beteriko ontzi bat neramala.

–Hara, ziklope: giza haragia jan eta gero, ardoa edan behar huke, itsasontzian zer nolako edaria genekarren jakin dezaan. Opari gisa ekarri diat, nitaz errukitu eta etxera itzultzen lagunduko hidalakoa, baina erabat haserretu haiz.

Berak hartu eta edan egin zuen, eta biziki gustatu zitzaion. Gehiago eskatu zidan.

–Emadak gehiago, eta esadak hire izena, harrera-opari bat egingo diat eta. Lurrak ziklopeoi ere ematen ziguk ardorik, baina heure hau anbrosia eta [nektar](#) hutsa duk.

Hala esan zuen, eta nik ardo gehiago eskaini nion. Hiru bider eraman nion, eta hiru bider edan zuen neurririk gabe. Gero, burua [lausotu](#) zitzaionean, hitz eztiak esan nizkion:

–Ziklope: izena galdetu didak. Esango diat, baina hire opariaren truke. Inor Ez diat izena, Inor Ez deitzen zidatek amak eta aitak eta lagun guztiek.

Honela erantzun zidan, bihotz ankerrez:

–Inor Ez azkena jango diat, eta haren lagun guztiak aurrena. Hori izango duk oparia.

Gora begira etzan zen, eta lepoa alde batera jiratu zuen; korrokada egiten zuen bakoitzean, ardo [turrustak](#) eta giza haragi zatiak irteten zitzaizkion eztarritik.

Hesola hartu eta [txingarretan](#) sartu nuen; lagunei adore eman nien, inork beldurrez atzera egin ez zezan. Hesola su hartzeko puntuan zegoela, sutatik atera nuen. Lagunak inguratu zitzaizkidan, hesolari heldu, eta begian sartu zioten. Nik indar egiten nuen, jiraka, [daratuluaz](#) egurra zulatzen ari banintz bezala. Odola isurtzen hasi zen, eta suak [betseina](#) eta betazalak erre zizkion. Garrasi ikaragarri bat bota zuen, eta leizeko harriek dardara egin zuten. Gu ihesi abiatu ginen, erabat izuturik.

Begitik hesola odoltsua atera, eta, eroturik, harrika bota zuen. Oihuka, inguruko mendi-gailurretako leizeetan bizi ziren ziklopeei deika hasi zen. Oihuak entzunda, leize ingurura hurbildu ziren haiek, eta zer zuen galdetu zioten kanpotik.

–Zer gertatzen zaik, Polifemo, gauean horrelako oihuak egin eta gu esnatzeko? Hilkorren batek artaldeak ostu al dizkik? Hi indarrez edo [amarruz](#) hiltzen saiatu al da norbait?


Eta erantzun zien Polifemok leize barrutik:

–Lagunok: Inor Ez zabilek ni hil nahian, amarruez baliaturik.

Honela erantzun zioten besteek:

–Bada, inor ez badabil hi hil nahian, Zeusen gaitzen bat izango duk, eta horren kontra ez zagok zer eginik. Eskaiok laguntza Poseidon aitari.

Hori esanik, joan egin ziren. Nire bihotza barreka ari zen, guztiei ziria sartu nielako. Ziklopea, berriz, minez oihuka eta [iraulika](#) zebilen. Eskuez inguruak ukituz, sarrerako harriraino iritsi eta kendu egin zuen. Irteeran eseri zen, besoak luzaturik, ardiak irtetea haie artean inork ihes egin ez zezan. Ni, bitartean, egoera larri hartatik nola atera hausnartzen ari nintzen. Ahariak mardul-mardul zeuden, eta artile ugari eta luzea zuten. Hirunaka lotu nituen [zumitzez](#), ziklopeak lotarako erabiltzen zuen [etzangiatik](#) askaturikoez. Erdiko ahariaren azpian gizon bat zihoan, beste bi aharien erdian babesturik. Nik aharirik mardulena hautatu nuen, eta azpian jarri nintzaion, artileei gogor heldu eta haien artean bildurik. Halaxe egon ginen zain. Ziklopeak artaldeko harrak belazera atera zituen, emeak kexuka baitzeuden, jetzi gabe, [errapeak](#) esnez bete-beterik. Min ikaragarriak jasanez, aharien bizkarrak ukitzen zituen, irten ahala. Ez zuen asko uste, ergel halakoak, nire lagunak ahari iletuen sabel azpian loturik joango zirenik.



2. *Odiseo Polifemoren leizean*, 1630-1635 artean.

Egilea: Jakob Jordaens (1593-1678).

Ni ninderaman aharia irten zen azkena. Polifemo ziklope indartsuak hura ere ukitu zuen, eta esan zion:

–Ahari laguna: zergatik irten haiz azkena leizetik? Lehen ez hintzen inoiz artaldearen atzetik ibiltzen; aitzitik, aurrena iristen hintzen, pauso handiak emanez, belazeko lore samurrak jatera edo erreka ura edatera; eta aurrena itzultzen hintzen, halaber, ilunabarrean ukuilura. Hire nagusiaren begiagatik hago horrela, ziurrenik. Gizon gaizto batek, aurrena mozkortu eta gero itsutu egin naik, baina Inor Ez horrek ez zio oraindik heriotzari ihes egin. Hitz egiten baheki, nire haserretik non gorde den esateko! Muinak zoruaren kontra lehertuko nizkiokek leize osoa ziprztinduz.

Hori esanik, joaten utzi zion ahariari. Leizetik eta itxituratik urrundu ginenean, neure burua ahariaren azpitik askatu eta gero lagunak askatu nituen. Jarraian, artaldea gure atzetik eraman genuen itsasontziraino. Lagunek ongi etorria eman ziguten, eta negar egin zuten bizia galdu zutenengatik. Nik, haatik, ez nien utzi negar egiten, eta agindu nien artalde ugaria ontziratu, eta itsasoratzeko. Arraunean urrundu ginen handik. Urrun samar geundela, iseka egin nion ziklopeari, oihuka:

–Ziklope! Ez zuan hain ahula lagun guztiak jan behar hizkion gizona! Izan duk heure gaiztakerien ordaina! Ostatu eman beharrean, jan egin dituk higana etorritakoak! Zeusek zigortu hau!

Nire hitzek are gehiago haserretu zuten. Mendi handi bati gailurra erauzi eta harrika bota zigun; ontziaren atzean erori zen, eta ia-ia [leman](#) jo zion. Itsasoan uhinak altxatu ziren, eta ontzia lurrerantz eraman zuten. Arraunean irten ginen hartatik. Lehen [halako](#) bi urrundu ginelarik, oihuka hasi nintzaion berriro ziklopeari, lagunek hori ez egiteko esaten bazidaten ere.

–Ziklope! Norbaitek galdetzen badik nork itsutu dian begi bakar hori, esaiok Ulises hiri suntsitzaileak egin diala, Laertes semeak, Itakan bizi denak!

HOMERO (2000). [Ulises](#). Juan Kruz Igerabideren egokitzaipena. Donostia: Erein. (55-60).

IRUDIAK

1. Steven Lek, , via Wikimedia Commons. Lan hau [Creative Commons Aitortu Partekatu Berdin 4.0 lizentzia](#) baten mende dago.

2. Jacob Jordaens, , via Wikimedia Commons.